



## Neandertalek 'aspirinak' eta 'antibiotikoak' hartzen zituzten



Neandertalak orain dela 40.000 urte desagertu zen espeziea da eta inguruko zuhaitzen eta landareen azala erabiltzen zuten hasiberriak sortzeko, egungo aspirina eta antibiotikoen antzekoak.

Nature aldizkarian aste honetan publikatutako aurkikuntza Natura-Zientzietako Museo Nazionalak eta Biologia Ebolutiboaren Institutuak, Adelaidako (Australia) Unibertsitateko eta Liverpooleko (Erresuma Batua) Unibertsitateko zientifikoekin batera egindako ikerketaren barnean dago.

Belgikako Spy eta Asturiaseko El Sidron aztarnategietako lau indibiduen hortzetako material genetiko sekuentziatu dute ikertzaileek.




### Desberdintasuna

Etxetik kanpo lanean ari diren euskal emakumeek 4,5 ordu ematen dituzte egunean 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzen, eta gizonek, aldiz, 2,9 ordu.

## 4,4 graduko lurrikara izan da gaur Iruñerrian

Richter eskalan 4,4 graduko indarra izan duen lurrikara izan da gaur goizean Iruñerrian. Geografia Institutu Nazionalak emandako datuen arabera, epizentroatik Orikainen kokatu da, eta hipozentroatik kilometro bateko sakoneran, 07:43ean. Hiru-lau segundo inguruko iraupena izan du sismoak.

Lurrikara hainbat lekutan sentitu da, besteak beste, Zizur, Berriozar, Noain, Huarte, baita ere urrunagoetan: Lizarra, Tafalla, Tolosa, Ordizia, Donostia, Irun eta Hendaian. Hiritarrek dardara txikia sentitu dute etxe barruetan, altzariak eta apalak mugitu, eta kalean zeuden oinezko batzuek martxa gelditu dute.



## Euskadin orain arte atzeman gabeko diseinuko 34 droga aurkitu dituzte



Espainiako Gobernuak Euskadin duen ordezkariak lurraldean orain arte atzeman gabeko diseinuko 34 droga aurkitu zituen iaz, horietatik sei Espainian inoiz hauteman gabekoak.

Gobernuak adierazi duenez, 1.696 kilo estupefaziante eta psikoaktibo konfiskatu zituen iaz Poliziak. Pasaiako laborategian egin ziren drogen azterketak eta horien emaitzak jakinarazi dituzte. Atzemandako diseinuko droga horietako sei orain arte ezezagunak ziren Espainian, "osagai kimiko eta sintetiko konplexuak" dituzte eta epe luzean osasunean izango duten eragina argitzeke dago.

Bestalde, diseinuko drogak Euskadin izandako igoeraz ohartarazi zuen Gobernuaren ordezkariak: 2015ean hiru substantzia berri atzeman zituzten eta 2016an, berriz, 34.

## Eskola jazarpena

Eusko Jaurlaritzak 121 eskola jazarpen kasu baieztatu zituen 2015-2016 ikasturtean.



Kasuen izaerak aztertuz, gehien gertatzen direnak hitzezko erasoak dira, kasuen %43; bazterketa soziala, %25; kasuen %16 eraso fisikoak dira; %11,6 beldurra eragitea, xantaia edo mehatxuak; %4, bestelako kasu batzuk eta, azkenik, %1 baino gutxiago dira jazarpen edo abusu sexuala, edo jazarpen sexista.

## Mezuetan iragarkiak nola txertatu aztertzen ari da WhatsApp



Erabiltzaileen mezuetan iragarkiak txertatzeko modua aztertzen ari da WhatsApp, erabiltzaile gehien dituen berehalako mezularitza aplikazioak. Errentagarritasun ekonomikoa lortzea izango litzateke eguneraketa horren helburu nagusia.

Konpainia horren jabeek enpresa pribatuei saldu nahi dizkiete erabiltzaileen telefono zenbakiak. Antza denez, erabiltzaile bakoitzari iragarki jakin bat bidaliko liokete.

Gauzak horrela, WhatsAppek pertsona bakoitzaren interesak hartuko lituzke kontuan iragarkiak bidaltzeko orduan, eta kritika ugari sortu lezaketen iragarki masiboak alde batera utziko lituzkete. Hala ere, iragarkiak txertatzeak ondorio latzak ekar litzake, erabiltzaile askok aplikazioa desinstalatu dutela ohartarazi baitute.



## Angulak legez kanpo saltzen zituen sare bat desegin dute

Txinan angulak legez kanpo saltzen zituen nazioarteko sare bat desegin dute, Europako hainbat polizia indarrek elkarlanean burututako operazioan. Angula trafikora bideratutako inoizko sarerik handiena desegin dutela esan dute ikerketako arduradunek.

Oro har, 19 lagun atxilotu dituzte operazioan, zortzi Espainian eta bederatziz Grezian. Urtean, zazpi milioi euroko irabaziak lortzen zituen sareak.

Europako Batasunak 2010ean angulen esportazioa debekatu zuenetik, espezie horren legez kanpoko salmentaren kontra egin den operaziorik handiena da gaur jakitera eman dutena.

Zuzendutako operazioan Espainiak, Portugalek, Frantziak, Greziak, Italiak eta Erresuma Batuak hartu dute parte.

## EGURALDIAK TXARRERA EGINGO DU

**Larunbataren** hasieran ostarte batzuk agertuko dira. Geroago, haizea ipar-mendebaldera aldatuko da eta hodeiak ugarituz joango dira. Arratsalde-gau partean goibel egongo da, temperaturaren beherakada espero da eta egunaren amaieran euri txikia egingo du. **Igandearen** lehen partean hodeitsu egongo den arren, euri gutxi egingo du eta haizea suabe ibiliko da, baina egunaren bigarren zatian, ipar-mendebaldeko haizea harrotu eta euritara joko du. Eguerditik aurrera, zaparradak sarriagoak eta mardulagoak izango dira eta amaieran, zaparradak trumoiak izan daitezke eta txingorra egin dezake. Temperatura jaitsiko da eta 15 °C-tik behera geratuko da.

Euskadiko outlet azokarik handienaren



hamabigarren edizioa ospatuko da Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre erakustazokan, gaurtik igandera. Azokak 1. pabiloiaren 12.500 metro koadro hartuko ditu, 150 erakusle baino gehiagorekin eta berrikuntza handiekin.

Goizeko 11:00etatik iluntzeko 21:00etara arte, etenik gabeko hiru egunetan, jendeak lehen marken eskaintzez gozatu ahal izango du preziorik hoberenean, eta sarien zozketan parte hartzeko aukera eta "food truck" delakoan eskaintza gastronomiko zabala izango du. Sarreraren prezioa bi eurokoa izango da, baina 14 urtetik beherakoak dohainik sartu ahal izango dira.

## Alex Txikonek bukatutzat eman du Everestera igotzeko espedizioa



Alex Txikon alpinista bizkaitarra Everest mendira igotzeko espedizioa bukatutzat ematea erabaki zuen asteazkenean, klimatologiaren baldintza zailen ondorioz. Lemoako mendizaleak abenduaren 25ean hasi zuen munduko gailurrik altuenera neguan eta oxigeno artifizialik gabe igotzeko espedizioa.

"Aurrera jarraitzea suizidioa" izango litzatekeela adierazi du Txikonek. Izan ere, azken orduetan 70 km/h-ko haize boladak eta neguko muturreko tenperaturak izan dituzte (zero azpitiko 40 gradu). Gainera, aurreikuspen arabera, baldintza klimatologikoak are txarragoak izango dira, 115 km/h-ko haize boladekin, elur prezipitazioekin eta elur jausiak izateko arrisku argiarekin.

"Espedizioaren arduradun bezala, ezin dut nire lagunak eta nire bizia arriskuan jarri", esan du Bizkaiko mendizaleak. "Erabaki zaila izan da, baina hobe horrela gero damutzea baino", gaineratu du.

Alpinista lemoatarra eta bere taldea C2 postuan zeuden astelehenean, gailurretik 6.400 bat metrora, baina 8.000 bat metroan dagoen C4 gunera igotzeko aukera baztertua eta hasierako kanpamentura itzultzea erabaki zuten. Hurrengo astean bueltatuko da etxera Alex Txikon.